Desde el año 1965 el **2 de abril** se celebra el **Día Internacional del Libro Infantil**, para conmemorar y recordar la fecha de nacimiento del escritor danés **Hans Christian Andersen** y la importancia que han tenido sus obras literarias. Sus cuentos son de sobra conocidos en todo el mundo, por lo que se le considera **"el padre de la literatura infantil".**

**¿Quién no conoce cuentos cómo…?**

- La Sirenita - Garbancito
- El Patito Feo - Hans el Patán
- El soldadito de plomo - …

De la organización de los actos conmemorativos de esta fecha se encarga la **IBBY** (Organización Internacional del Libro Infantil). Cada año le corresponde redactar el mensaje de la celebración a alguna de sus diferentes secciones. Este año es el turno de los **EMIRATOS ARABES (autora del mensaje: MARWA OBAID y del cartel: NASIM ABAEIAN).** La OEPLI es la sección de España, y dentro de ella se encuentra la asociación vasca Galtzagorri, encargada de dinamizar estas actividades. http://www.oepli.org/pag/cas/dia.php

En la Biblioteca Municipal de Iurreta, otro año más, nos adherimos a la propuesta de Galtzagorri, ofreciendo la siguiente programación entorno al libro seleccionado para este año:

1. **Taller de ilustración** (9-13 de marzo): visitas guiadas con los alumnos de 1º a 6º de Educación Primaria de la escuela local. Estas visitas estarán bajo la supervisión de la dinamizadora **AINHOA LARRINAGA.** Se confeccionará una nueva versión del cuento **"Los novios"** para una edición en gran formato.

2. **Dramatización del cuento** + **lectura del mensaje** + **presentación del libro elaborado por los alumnas/os de Maiztegi** (***27 de marzo,*** a las **18:00**) junto a otras muchas bibliotecas del mundo y de nuestro entorno.

**OIHANA ETXEGIBEL**

**(A partir de 5 años)**

1965. urteaz geroztik **Apirilaren 2a**, **Hans Christian Andersen** idazle daniarraren jaiotze urteurrena eta bere lanak literaturan izan duen garrantzia ospatzeko, **Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna** da**.** Bere ipuinak aski ezagunak dira mundu guztian zehar. Hau dela eta **"haur literaturaren aitatzat"** hartua dago:

**Nork ez ditu ezagutzen … bezalako ipuinak?**

- Sirenatxoa - Barbantxo
- Ahatetxo itsusia - Hans kankailu
- Berunezko soldadutxoa - …

Egun honen antolaketaz **IBBY** (Haur Liburuaren Nazioarteko Erakundea) arduratzen da, urtero herrialde bateko sail ezberdin baten ardura da ospakizunerako mezua idazteaz. Aurten **ARABIAR EMIRRERRI BATUen** txanda da **(mezuaren egilea: MARWA OBAID eta kartelarena: NASIM ABAEIAN).** OEPLI Espainiako saila da, Galtzagorri euskal erakundearen esku dagoelarik euskal ordezkaritza eta horrelako ekintzak antolatzeko ardura. http://www.oepli.org/pag/eu/dia.php

Iurretako Herri Bibliotekak beste behin, Galtzagorri-ren proposamenarekin bat egingo du, aurtengo aukeratua izan den ipuinaren inguruan hurrengo ekintzak antolatuz:

1. **Ilustrazio tailerra** (Martxoak 9-13): herriko ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 1-6.mailetako eskolaumeen bisita gidatuen bitartez. Bisita hauetan **"Ezkongaiak"** ipuinaren bertsio berri bat egingo da **AINHOA LARRINAGA** dinamizatzailearen gidaritzapean formatu handiko edizio baterako.

2. **Ipuinaren dramatizazioa + mezuaren irakurketa + Maiztegiko ikasleek egindako liburuaren aurkezpena** (**Martxoaren** 27an, **18:00**etan) munduko eta inguruko beste hainbat bibliotekekin batera.

**OIHANA ETXEGIBEL**

**(5 urtetik gorakoentzat)**

“Hainbat hizkuntzatan mintzo eta jatorri askotarikoak gara, hala ere, istorio berberak partekatzen ditugu”.
Nazioarteko istorioak... folklore-istorioak, istorio berbera da guztioi kontatua hainbat ahotsetan hainbat koloretan eta hala ere ez da aldatzen...
Hasiera...
Korapiloa...
eta amaiera.
Istorio berbera da guztiok jakin eta maite duguna.
Guztiok entzun dugu hainbat bertsiotan, hainbat ahotsek kontatua, eta hala ere beti berbera.
Heroia... printzesa... eta bilaua.
Ez du axola beraien hizkuntzak, ezta beraien izenak edo aurpegiak ere.
Beti berbera da.
Hasiera,
korapiloa
eta amaiera.
Beti heroi hura...printzesa hura eta bilau hura, gizaldiz gizaldi aldatu gabe.
Konpainia egiten digute, ametsetan xuxurlaka aritzen zaizkigu,
lo harrarazten digute goxo-goxo.
Haien ahotsak aspaldi isildu ziren, baina gure bihotzean bizi dira betiko, misterioaren eta irudimenaren zelaian elkartzen gaituzte-eta, kultura ezberdin guztiak istorio bakar batean urtuz”.

**Marwa Obaid**




25 URTE
Iurreta
Eleizateko Udala
HERRI BIBLIOTEKA